

## HITZ AURREA

*Aspaldiko asmoa da hauxe, lehenago idazle zaharrena eta gero gaur bizi diranen hitz-lauzko bildumak egin nabia. Baina zaharrena Etxenagusiak ondo bete zuen Euskal Idazleen Lorategia-z, lehendik Lafittek eskaini zigun Eskualdunen Loretegia-z osatzen dena. Arrazoi honegatik, gaurkoari soilki heldu diogu.*

*Holako lan bat burutzeko beharrezkoa genuen lehendabizi Escritores euskéricos bezalako katalogoa egitea. Euskal literatura hain zabala ez bada ere, uste baino zabalagoa eta sakabanatuagoa da. Aberatsegia ez bada ere, dituen frutuak behar bezala aprobetxatzea zail zaio, duen sakabanatze horregatik. Zer esanik ere ez, erdera indartsuagoa dagoela eta leku asko jaten digula literaturaren alorrean, baina lekua jatetik aparte, ba da holako euskal literatura baztertze bat, intentziozkoa eta uste-gabezkoa, bietarik. Eta ez gu-*

*txi, joko horren lagungarri, erderaz idazten duten euskaldun askok euskal literatura behar bezala ez eza-gutzeagatik. Honegatik, Escritores euskéricos-ekin, gaur gure literaturaren xoko bazterretara begiratuaz, lehen inbentario honekin, gaurko egoeran euskeraz idazten duten guztiegana hurbildu gara. Neurriak behartu gaitu nahi genituen idazle guztiak ezin sartu izatera. Hala ere, bilduma honek gaurko euskal literatura bere egoera zabalean adieraziko duela iduritzen zaigu. Eta, era berean, gure ideal-gogoak, desiratzen dugun helburura geroago eta indartsuago eramaten laguntzen digula.*

*Baina, euskeraz zer idazten da? Hau da askoren galdera. Gure artean baliozkorik ezer ote den jakin nahiez kezkaturik, anitzek giten duen galdera.*

*Lehenago galdetzen zen, euskeraz ba ote zen literaturarik. Eta duguna aberatsa ez bada ere, maiz esana dugu, euskaldunok irakurtzen dugunagatik, merezi dugun baino literatura aberatsagoa dugula.*

*Gaur oster, zer idazten den eta euskera gauza ote den, egungo gaiak eta goimailako teknikak erabiltzeko, galdetzen da. Nahiz eta honek erantzun errazagoa izan: euskera kulturarako gai da, euskalduna kulturarako gai den mailaraino. Euskera ondo dakien euskal idazleak kultura badu edo zientzietan barneratua badago berdin; ezinik ez da. Berdin da edozein espezialidadetan edo teknika gaitan. Jakina, lanak argitaratzeko, euskaldunen artean espezialidade bakoitzean nahiko irakurle ez bada, honetan izango*

*dira prolemak, baina ez idatzi ezinean. Hemen dago kontua, eta ez hizkuntzak gaiok menderatzean.*

*Baina gure asmoak ez dira hain goi-mailakoak. Hobeto esan, ez dira espezialidade bati begira bildu ditugunak, baizik kulturaren ideia zabalagotara goaz. Askok ulertu eta bereganatu ahal izango duten erako idaz-lanez. Euskeraz, gaur zer idazten da? galdetzen dutenentzat erantzunez, beste zenbait beharren artean, noski. Eskuetan duzun liburu hau, irakurle, gaur euskeraz erabiltzen diren gai ororen mustrario bat duzu. Era zabalez, kultura orokorrez, gaurko prolemak eta kezkak. Irakurgai goxoen ondoan pentsamentu sakonak ere bai; gai herrikoietatik intelektualetara arte: saiakeraz, ipuiez, artikuluz; baita ere kontuan izan dugu zenbait gutun sartzean, eskutitzak zelan egin ikasi nahi duenak eredutzat har dezan. Erakusaldirik ez da falta: literaturaz, arteaz, munduko politikaz, ekonomiaz, zientziaz, gaurko pentsaerak, erarik ugarienean. Nahiz larri-minez edo nahiz umorez, nahiz euskaldunok etxera begira edo nahiz euskaldunok gure etxetik beste erresumetara begira. Gure Rikardo Arregi zenak, —eta nork ez?—, ikusi nahi zuen euskera landua, Lizardi berak zion erakoa: «jakite-egoek igoa; soina zahar, berri gogoa...»*

*Bestalde, Euskal Alfabetatze taldeetakoak ere, une batetan irakurtzeko bezalako gai laburrez, gaur egungo gai biziez osatua litzakean oraingo idazleen antologia baten premia agertu izan dute. Batez ere irakurgai biziak komeni direla ikusten dutelako.*

Une honetan, Euskal Alfabetatze taldeek, berek multikopiaz eratutako lanex baliatu izan dira. Lan horiek aurrerantzean ere beharrezkoak izango dituzte beren kursilloetan, baina hauetatik kanpora etxerako irakurgaiak gomendatzean ez dute orain arte aukera handirik izan. Arestian aipatu dugun Etxenagusiaren Euskal Idazleen Lorategia-k ematen diote laguntza baliosa, eta hutsune hori betetzera datorkie. Izan ere, liburu honek, ezagutzea hain komenigarri diren idazle zaharregatik ditu bere alderik hoberenak. Baina ohar-tzen dira horiek soilki ere ez direla aski. Gainera, irakurgai biziagoak ere komeni direla, praktikak be-rak erakutsi du. Eta gainera, gai osatuez hornituak. Honegatik, liburu hau ez da Etxenagusiarenan or-dezko, baizik lagunkide. Gaurkoaren ideia sakona emango zuen bat behar zen, eta, HEGATSEZ ize-neko honekin, hori bete nahi dugu.

Hala ere, esan bezala, ez da gura asmoa klaseetan irakurgai bezala erabiltzeko, ez; klaseetatik kanpora, edo nahiz klaseekin zer ikusirik ez duen euskaldunari, irakurketa praktikatzen laguntzeko baizik.

Era berean, irakurgai bilduma izatetik aparte, historiaren kontestu barnean, gaur egungo literatu-raren agiri bat izango da.

Asmo horiekin, edo asmo horiek bete nahirik, hautaturiko idazleen artikuluz edo ipuin laburrez egi-tea pentsatu genuen; bide batez, batasunerako bi-dean lagundu abal izateko. Euskaltzaindiak Arantza-zuko biltzar nagusietan gomendatu zuen arauetara

hurbilduaz (1). Euskalki guzietako idazleez baliatuaz, baina ortografian, deklinabidean eta hiztegian bederen, biltzar horietan argi markatu ziren bideei hurbilduaz, esan dugun bezala. H letrari dagokionez ere, bertan Euskaltzaindiak begi honez ikusiko lukeala, alegia, «... BI BOKAL BERDIN NAHIZ EZBERDINEN ARTEAN ERABILTZEN HASTEA. HONEK EZ DU ESAN NAHI GORAGO JO NAHI DUTENEN SAIOAK EZ DIRELA ONGI IKUSIAK IZANGO.» (2). Oraingoz batasun osoaren eredu hartzerik ez bada ere, bidean ari garelako eta bidea ibiliaz egiten delako, gutxienez horrantza abiatzen lagundu, eta hemendik urte batzutara, honen errara, beste bilduma bat egin beharra izango da, gogoan dugun batasun horretatik hurbilago izango dena.

Izan ere, euskeraren batasunik eza, euskera zatitua egotea da. Euskera zatitua, Euskal-Herri zatitua. Eta Arantzazun emandako normak jarraitzen ditugu eta jarraituko ditugu, beste norbaitek bide hobea eskaintzen ez digun artean.

Hizkuntza elkar komunikatzeko da, eta elkar komunikatzeko era egokirik gabe, euskaldunok elkarren artean etenda gaude. Eta batasunerantz ez doan euskaltzalea, ezta behar bada egonen euskeraren aurka, baina bai Euskal-Herriaren izpiritua, bera konturatzeko ez bada ere.

---

(1) Ikusi, *Euskera*, XIII-gn tomoa (1968), 135/265 orrialdeak.

(2) *Euskera*, zenbaki bera, 250 orrialdean.

*Norma horiek oraindik erabiltzen ez duen zenbait ere ba da, hemengo idazleen artean, baina beraren baimenez aldizkarietatik jaso ditugu idazlanok, azken arauetara jarriaz. Honela egin dugunean, kopia bat egileari bidalduaz izan da, eta bakoitzaren eskariz gauzatxo batzuk zuzenduaz edo gehituaz. Beraz, ez harri, irakurle, aipatzen den aldizkaritik jaso dugun lana bertan bezala aurkitzen ez ba duzu ere. Honekin esan nahi dugu, iritzi zabalez eta inor behartu gabe jokatu dugula. Eta honela egin dugu, azalezko itxura hau bederen, ortografia, deklinabidea eta abar, abalik berdintsuen azaltzarren, zeren bestetara, bilduma aski anarkikoa izango zen Euskal-Herriko euskalki guzietako idazleak sartzen ditugulako. Zertako? Denok garelako euskaldun, elkar hobeto ezagutzeko eta batez ere elkarren arteko diferentziak ezagutuaz, hurbiltzeak gehiago pentsaraziko digulako.*

*Beharrezkoa genuen hala egin beharra, gure iduriz. Gure kulturaren arazo guztia, probintzia mugen gainetik planteatu behar dela iduritzen zaigu, euskaldun ikusgune edo perspektiba batetatik. Probintzien arteko muga politikoen eta, Bidasoa ibaia beraren gainetik ere, planteatzen genezakeala eta behar dugula. Guztiz gara iritzi bereko, J. M. Torrealdai-k Ipar Euskal Herria Jakin sortako liburutxoan dioenarekin. Gure lan eta ekintza guztiak batasun eta planifikazio baten barruan egin behar lirake, Euskal-Herri osoa kontutan dugularik.*

*Horrela, gure gaurko idazleen prosa-antologia honen moldatzea, bai alfabetatze lanetan ari direnei*

—irakasle eta idazle— eta bai gainerako euskaltzaleei, zuzendu nahi diegu, Euskal-Herriko edozein aldetan dela, irakur-liburu bezala usatzeko baliozko izan ahal dakikeen esperantzan. Eta euskaldun irakurleari oro har, joera eta bizkelgi desberdinetako artikulua irakurriaz, gaurko euskal literaturaren ezagutza zabal bat ukan dezan.

Gauza ezaguna da, zein arrotz eta bitxi egiten zaion irakurleari, norberaren txoko-euskeratik jalgi ezkerro, liburu eta aldizkarietan aurki daitezkeen hitz, esaera eta aditz joko. Areago oraindik ertzetako euskalkietan mintzatzen denari, zeren literatura gehiena erdialdeko literatur-euskalkietan edo erdialdekoei begira idazten den ezkerro, zail gertatzen bait zaie testu horiek behar bezala konprenitzea. Arazo hau, egia esateko, denona da gutxi edo asko. Erdialdekoak ere, desberdintasun gutxiago ukan arren, aski bananduak bait daude kultura nagusi biren artean horretataraturik.

Arrazoi horiegatik, ikas-bidezko lana errazteko, liburuaren bukaeran doa geografiazko aurkibidea, euskeraz irakurtzen ohitura gutxi duenari edo euskalki bakar bat besterik ez dakienaren lagungarri. Bertatik, berehala jakin dezan zein idazle nongoa den, eta jakina, norberaren ingurukoetatik hasteak bideak erraztuko dizkio eta euskera orokorrera mailaz maila igo ahal izango du gehiegizko nekerik gabe. Izan ere, honelako beharretan laguntzeko asmoak ditu liburu honek.

Bestalde, irakasle nahiz irakurlearen lana erraztera doaz azken orrietan sail bitan ezarri dizkiogun

*adierazpenak: hitzak eta aditzak. Ikaslea, artikuluek dakarten gaiaz, mamiaz eta esan nahiaren zentzuaz jabe dadin, gisa honetan irakurtzea errazago gerta dakion, eta bide batez bere euskera aberastu ahal dezan.*

*Hitzen adierazpenetan, otoi, ez gero hiztegi baten zehaztasunik bila. Ez du hiztegi batek behar lukean azalpen zehatzik. Ahal izan dugunean, sinonimoen bidez adierazi dugu, eta beste batzutan —gutxitan— gaztelaniazko bere ordezkorekin.*

*Euskaldunok elkar aditzeko oztoporik handienetako bat, aditzaren diferentzian datza. Horregatik, Euskal-Herriko hizkelgi guztietan jarri nahi izan ditugu aditz jokuok. Gutxienez literaturan landu diren hizkelgienak. Mendebaldeko hizkelgietatik hasi eta ekialdekoetaraino, ezkerretik eskuinerat. Bizkaieratik hasi eta ziberotar euskalkirantz. Nahiago izan dugu probintzia izenez ez klasifikatzea, nahaspide gerta bait daiteke hizkelgi mugak eta probintzienak bat ez datozten ezkerro.*

*Argi beharrez, norbaitek xehetasunex aztertu nahi baldin badu ere, hau da hitz eta aditz azterketetarako oinharritz erabili dugun bibliografia:*

## HIZTEGIAK:

*Diccionario Vasco-Español-Francés: R. M. de Azkue-rena.*

*Dictiönaire Basque-Française: Pierre Lhande-rena.*

*Diccionario Vasco-Castellano Castellano-Vasco: Arbelaitz-ena.*



Lexique Français-Basque: *A. Tournier eta P. Lafitte-rena.*

Diccionario Castellano-Vasco: *Plácido Mugica-rena.*

Euskera (*Batasunerako hiztegia*) XIII-gn. tomoa (1968) 251/265 orr.: *Euskaltzaindia.*

Batasunaren Kutxa: Euskal Idazleen Elkarte. G. Aresti - X. Kintana.

## HIZTEGITXOAK:

Euskal Idazleen Lorategia. *Ikus: antologia honen azken aldean 292-gn. orr.: Karmelo Etxenagusia.*

Euskera. *Un poco de gramática y algo de morfología: Fr. I. Omaechevarria-ren liburu honen 3-gn partean, A. L. Villasantek prestatutako Crestomática-k dakarzkien hiztegitxoak.*

Gero. *Euskaltzaindiaren ardurapean, 1954-ko argitalpena. M. Lekuonak prestatua eta aintzin-solas-tua: Luis Mitxelenak egin zuen Iztegitxo, II Eraskuna, 462-gn. orr.*

Prosistas Navarros Contemporáneos en Lengua Vasca: *A. Irigaray-ren bilduma.*

Euskalerriko Ipuñak: *A. Irigaray-k eraturako bilduma.*

## ADITZARI BURUZKOAK:

Gramática de los Cuatro Dialectos de la Lengua Euskara: *Arturo Campión.*

Euskal Aditza (*Gipuzko-Bizkaierak*): Joseba Intxausti.

Grammaire Basque (*Navarro-Labourdin littéraire*): Pierre Lafitte.

Euskera. *Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*: Fr. I. Omaechevarria.

Gero. *Euskaltzaindiaren ardurapean, 1954-an argitaratua*: Manuel Lekuonak, *Axularren testuari er-tzetan jarri zizkion hitz eta aditz-formen adierazpen eta oharrak*.

Euskaldunentzat Gramatika Euskeraz: F. Mendi-zabal.

Batasunaren Kutxa: Euskal Idazleen Elkartea. G. Aresti - X. Kintana.

*Azkenez, esan beharrean gaude: hemen, idazle guztiei toki berdintsua eskainiaz azaltzen ahalegindu garela. Eta lan bakoitzak norma hauek bete beharra izan du:*

a) *Euskera batura begira. Euskaltzaindiak Arantzazun adiarazi zituen erregela minimun haiekin.*

b) *Artikulu oso bat edo nahiz ipuin labur oso bat, idazleari gogoko zaiona, nahiz lehen argitaratua. (Inoiz geuk hautaturik jaso ditugu idazlearen gogo horrela izanik).*

d) *Gaia libre, euskerari buruzkoa izan ezik, zeren gai hau gehiegi erabilia delako eta gainera antologia monotonia aspergarri batetan eroritzeko arriskua izango genuelako.*

*Hautatu genituen idazleetatik batzuk falta dira, lanak ukatu dizkiguten pare bat eta oraindik erantzunaren zain gaudenenak. Bost edo sei denera ere. Beraz, inorengandik hornitu ba gara ere, ez da izan neke gabeko fruitua. Baina hala ere nekeak pozik leporatu ditugu, batez ere Alfabetatze taldeak esku artean behar duten materiala ugaritzeko eta horien sortzaile eta antolatzaile izan zen Rikardo zenaren oroiz zerbait eskaini ahal izateko. Hala ere, liburuak aurrean daroan eskaintzan bertan diogun bezala, berriz ere Leizarragarekin esanen dugu: «Banián anbitz gauça scribatzecoric, baina extrauát tintaz eta hegatzes scribatu nahi» (Jesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria, San Juan-en 3-gn. epistola, 13-gn. ber-seta).*

*Jabetzen gara, beraz, gazterik galdu dugun maisu gaztearekin dugun zorra betetzeko haina ez dela, baina ba dakigu zerbait merezigarriagoa egiten ari direla bere lankide zituen «Jakín taldekoek». Gaurkoz, bihoa gure borondatea.*

Eibar, 1970-eko apirilaren 26-an.

J. S. M. eta S. B.